

BONIRI BURUZ SOLASEAN

Amaia OLKOTZ GOIKOETXEA



Aldizkariaren aro berri honen hogeitabostgarren urteurren honetan, aipatu aroaren sorterazle bati begirunezko omenaldi txiki bat eskaini nahi izan diogu. Makina bat hitz egin eta makina bat gauza esan da Boni Otegi zenaz. Ondorengo lerrook bere emazte Kontxik eta seme Mikelek senar eta aita zutenaz goxokiro kondatu dizkiguten hamaika gertaera, eritzi eta oroitzapenen zati nimino bat baino ez dira. Dena den, bitez gure gogoan bizirik dirauenaren adierazgarri xume.

OARSO: Elkarrizketa honi nolabait ere ekiteko esango al zenigukete Boniren izakeraren nabardurarik nagusienak zein-ziren?

KONTXI: Oro har oso pertsona gizatiarra zela uste dut, bai, behar zenean zintzarri hutsa zen, baina atzera behar zenean serioa ere bai.

MIKEL: Bai, egiten zituenak ongi baino hobeto mamitu-tu egiten zituen. Oso arduratsua zen.

KONTXI: Eta ironikoa! Ene! Dena zorrotzasunez ikusten zuen eta denari ematen zion bigarren edo hirugarren zentzu bat.

MIKEL: Bai, bere “je, je...” Zelebrea botatzen zuenean bazebiltzion zerbait buruan. Aldarte biziak izaten zituen, bai eta haserrealdi galantak harrapatu ere. Orduan bere “cojones” ozen haiteako bat askatzen zigun, eta erne eta zuzen ibili beharrean izaten ginen, dena den, horrek ez du baikorra eta bihotz oneko ez zenik esan nahi.

KONTXI: Azkenik bere xehezaletasuna aipatuko nuke. Garaitu honetarako horko aulki hori —egongelaren txoko batetan dagoen aulki bat erakusten digu— paperez gainezka edukiko zuen eta hori ezin zitzaion uzkitu, ezta hautsa biltzeko ere!

OARSO: Oso balore pertsonal tinkoak omen zituen...

MIKEL: Bai, eta familia zen haietako bat. Familiari zego-kion edozer sakratua zen berarentzat. Etxekoei hoberena ematen saiatzen zen, askotan posibilitate eta aukerak kaskarrak baziren ere.

KONTXI: Egia borobila dio, sekula santan ez zuen onena aitarentzat eta kaskarragoa besteontzat utziko. Nik beste balore nagusi bezala bere fedea azpimarratuko nuke. Fede sendo eta sakona zeukan. Lourdesko Ama bere andreagaia zela esaten zuen, “mi moza” zeritzan. Hamalau urtetan zehar joan zen erromes Lourdesa andari edo “camillero” gisa. Hamabostgarrenez, ordea, jadanik gaisorik zegoela joan zen eta zera esan beharra daukat, han guztiz indarberritu zela. Halaxe esan zidan “agurtu dut neska (Lourdesko Ama, alegia) eta laster ikusko dut”.

MIKEL: Handik itzuli zenean zeukan itxura sinestezina zen, nik sendatu ere egin zela pentsatu nuen. Halere egun batzu barru berriro egin zuen behera. Bere fede handi horrek as-

ko lagundu zion gaisotasuna jasaten. Bada aipatu nahi dudana besterik, adiskidetasunari ematen zion garrantzia. Kuadrila eta kuadrilakideekin Erreterian ibiltzeari ez zion inoiz utzi. Nahiz eta munduaren beste muturrean egon, zortzietarako Erreterian, bere txokoan, behar zuen lagunekin pote batzu hartzeko.

KONTXI: Bai, berdin zitzaion barrikadak, kea, edo zena zelakoa gertatzea. Adiskide gizona zenaren frogarik nabarmena bera hil ondoren ikusi genuen. Oraindik orain, jende askok gogora erazten digu zer nolakoa zen. Azken batetan, oso tradiziozalea zela pentsatzen dut. Bere baloreak tradizionalistak ziren eta zenbait gauza nekez onartzen zuen.

OARSO: Zein uste duzue izan zela bere bizitzan zehar jasotzen zuten ilusiorik handiena, edo handienetarikoa behintzat?

KONTXI: Perura joan ahal izatea izan zela uste dut. Gogoan dut, ezkondu ginen garaitu hartan Pedrotxok eta Mont Blanc-era joateko asmoa zutela bera, niri garbigailu bat erostearren joan gabe geratu zela: “Mont Blanc edo garbigailua” esan zuen, “zangoak arin nituenean garbigailua behar, eta orain, sos batzu baditudanean zangoaz dauzkat baldar”. Erreteriarako anekdota bilduma egiteko ere ilusio handia zeukan. Bere aitak, Joxe Goñik, J.M. Marinek, Primik, Mitxek, edo eta beronek egin edo jasotako zelebrekeriak bildu nahi zituzten, baina piskanaka gehienak hil egin ziren eta bertan behera geratu zen.

OARSO: Eta sentitu zuen zapuztik handiena berriz?

MIKEL: Horiek ez zituen aipatzen, egia esan. Bere kolorkorako gordetzen zituen.

OARSO: Bere zaletasunez etengabeki mintza gintezke, ezta?... pila bait zeukan...

MIKEL: Bai, baina nagusia mendia zen. Mendiari atxikimendu edo debozio handia zion, eta mendi oren gainetik Aralarri, bere bigarren etxea zela esaten zuen. Mendia beretzat, mendiaren beraren errealitatea gainditzen zuen zerbait zen. Gazte-gaztea zenetik motxila hartu eta jo zuen Aralarra, han artzainarekin hizketan egon, ibili edo eta mendia sentitu asmoz. Bere herriko gauzak ezagutzea gustatzen zitzaion, “aurrena etxeko gauzak ikusi behar dira” esaten zuen. Euskalerrria ia osorik ezagutzen zuen, eta batez ere Gipuzkoa. Gipuzkoako bazter guztiak miatu zituen.

KONTXI: Bai, eta mendia hainbeste gustatua ez da harrizkoa Perura joatea berari hain handia iruditu izana. Han igaro zuen gure ezkontzaren hogeitazazpigarren urteurrena eta egun hartan igo zuen bosmila eta seirehun metrotako mendia niri eskaini zidan.

MIKEL: Eta ondoren “ttaka” zigarrotxoa piztu zuen. Mendiaz gain bazituen zaletasun gehiago: argazkilaritza, musika, txanpon bilduma, idaztea (idazten hastea erditzea baino



gehiago kostatzen zitzaiola esaten zuen), espeleologia egitea, egurrezko itsasontziak egitea, gidatzea...

OARSO: Kultura sendoaren jabe zela denok dakigu. Nola eskuratu zuen?

KONTXI: Oinarrizko ikasketak egin zituen, baina hortik aurrera berak, bere kabuz egin zuen. Berak jorratu eta landu zituen zekizkien guztiak.

OARSO: Nola ikusten zuen berak Euskalerrriaren etorkizuna?

KONTXI: Berak frankismoaren garaiean, gogor egin zuen borroka Euskalerrriaren alde. Dena den, garai haiek joan zirenean ezkortasun pitin bat somatzen zitzaion zeren eta zera esaten bait zidan, berak Euskalerrria kultura zela uste zuela, eta oker zegoela konturatu zela.

OARSO: Eta zeuk, Kontxi, nola eragin zenuen bere bizitzan, bere lanean?

KONTXI: Tira, asko maite ninduen eta jasan egiten ninduen...

MIKEL: Tira, asko maite ninduen eta jasan egiten ninduen...

MIKEL: Eeeeeeeeeeez! —Protesta zaratatsua egiten du eta ama beste zerbait esatera bultzatzen—

KONTXI: Nik toki askotara jarraitu dut. Elkar maite ginen, eta kito!

OARSO: Nolakoak izan dira bera joanez geroztitako urteak zuentzat?

MIKEL: Huts handia geratu zaigu, zeren eta nik berarekin oso momentu onak bizi izan nituen.

KONTXI: Bai, Boni hil zen egunean zera esan zidan Mikel: "Aita hil zait baina lagunik minena ere hil zait", beraz pentsa.

OARSO: Zer da une hauetan bizirik balego ikustea gehien gustatuko litzaiokeena? Eta gutxien?

MIKEL: Gehien gustatuko litzaiokeena beharbada, munduan gertatzen ari diren aurrerakuntza positibo guztiak ikusita izango litzateke.

KONTXI: Genetikaren munduan egiten ari diren aurre-
rapausuak ez litzaizkioke gustatuko, ordea. Eta bigarren galderari dagokionean, berriz, zera aipatuko nuke nik, Euskadin gertatzen den hainbat eta hainbat gauzarekin ez litzatekeela bat etorriko eta ez lituzkeela batere gogoko izango.

OARSO: Eta aimatzeko, jakin badakigunez, Bonik zelebrekeria eta anekdota ugari bizi izan zituen. Kondatuko al zenigukete bat edo beste?

MIKEL: Izugarritzko anekdota piloa zeukan, amaitezina litzateke denak azaltzea. Askok, jendeak Joxeba Elosegirekin nahasten zuelako gertatzen zitzaizkion. Hor etortzen zitzaizkion "Joxeba eta Joxeba!" eta berak beti berdin erantzuten zien: "Attu, barkatu, ni ez naiz Joxeba, ni Boni Otegi naiz".

KONTXI: Haatik, behin eduki zuen erantzun ez emateko tentaldia, San Pedroko arrandegi batetan Joxeba zelakoan zangurro batzu oparitu nahi izan zizkionean. Azkenean, egia aitortu zuen eta han itzuli behar izan zuen etxera batere zangurro eta ezer gabe.

MIKEL: Bazituen bestelakoak ere, frantses bati "Garçon pron que tenemos pris" esan zioneko adibidez.

KONTXI: Edo eta Pedrotxo kobazulo baten atarian utzi zutenekoa. Gizarajoa itxaroten asper-asper egin eta hor abiatzen da koba barrurantz, baina pasabide estu batetan ezin atzera ez aurrera egin geratu zen, beste guztiei bidea itxiz...

MIKEL: Bai, ta aitak zergatik sartu zen galdetu zionean, ez sartzeko agindu bait zioten, osabak zera erantzun omen zien: "asper-asper egina nengoan eta kanpoan!"

...Eta oroitzapen alai hauekin bukatutzat ematen dugu gure elkarhizketa, gure Boniri buruzko solasa...

